

Ahuntza
edo
Nor da Silvia?

Edward Albee

Obra hau 2009ko otsailaren 13an estreinatu da,
Donostiako Antzoki Zaharrean.

Talde ekoizlea:
Zuzendaria:
Euskaratzea / Zuzendari laguntzailea:

Txalo
Carlos Zabala
Julia Marin

Pertsonaiak:

ELENA:	Ane Gabarain
MARTIN:	Ramon Agirre
ENRIKE:	Asier Hormaza
JULEN:	Asier Oruesagasti

1. EKITALDIA

LORATEGIAN

(Ilunabarra. Etxeko lorategian. MARTIN hesia pintatzen ari da. Brotxa lurrean uzten du pintura-potearen barruan. Loreontzi bat lurretik hartu eta barandan jartzen du. Konturatzen da beste aldean pintatu gabe daukala pusketa bat. Hara doa. Pintatzen hasten da.)

(Denak pozik Martini eman berri dioten saria dela eta. MARTINEk kontzentrazio-arazoak ditu noizean behin)

ELENA *(Offean)* Ze ordutan etorriko dira? *(Erantzunik ez)*
(ELENA etxe barrutik ateratzen da, lore batzuk eskuan)
Martin? Ze ordutan etorriko dira?

MARTIN Zer?

ELENA Ze ordutan etorriko diren? *(Loreak pitxerrean jartzen hasten da)*

MARTIN Nor? A! Enrike. Laster. Ahaztu egiten zait dena. Gaur goizean, ezin nuen asmatu non neukan bizar-makina. Eta atzo ez nintzen gogoratzen ze izen duen Enrikeren semeak. Eta orain ere ez naiz gogoratzen. Txartel bat aurkitu dut txaketaren poltsikoan, niretzat batere zentzurik ez duena...

ELENA Asier.

MARTIN Zer?

ELENA Enrikeren semeak Asier izena du.

MARTIN Egia! Eta lore hauek?

ELENA Enkoadrea alaitzeko.

MARTIN ...?

ELENA Zu hor eseriko zara; kamerak hemen egongo dira... Alaitasun pixka bat jartzeko.

MARTIN (*Loreak usainduz*) Nondik datoz?

ELENA Kamerak?

MARTIN Ez; hauek.

ELENA *Ranunculus* familiakoak dira. (*Zigarroa atera*)

MARTIN Hara. Politikak dira. (*Hurbildu usaintzera*) Zergatik ez dute usainik?

ELENA Oso lotsatiak direlako. Edo agian usain leunegia dute zure usaimenerako. (*Hesira hurbildu*)

MARTIN Zentzumen guztiak galtzen ari naiz! Hurrengoa dastamena izango da. Gero, ukimena. Eta entzumena ere...

ELENA Eta hori 50 urte baino ez daukazula. Pentsa ze izango den 70ekin!

MARTIN Kontuz!

ELENA (*Eskuak zikintzen ditu*) Kaka. Eskerrik asko abisatzeagatik.

ELENA Zergatik jarri dituzu loreontziak pintura lehortu gabe baldin badago?

MARTIN Barandari hobeto eusteko. Pinturak kolaren lana egiten du.

ELENA A bai, barkatu. Ahaztuta nengoen jeinu bat daukagula etxean. (*Eskuak garbitu*)

MARTIN Zuri ere ahazten zaizkizu gauzak?

ELENA Zertarako gogoratu nahi zenuen Asierren izena?

MARTIN Ba, hasteko, ez nuelako ahaztu behar; eta gainera, Enrike etorri eta Julenen berri galdetzen badit, zer esan behar diot nik?: “Ondo, ondo zegok; eta zer moduz dago zera... zuen... zuen... seme hori?” (*“Asier” izena eskuan apuntatu*)

ELENA Ni ez nintzateke kezkatuko horregatik. Zerbait eskaini nahi diozu? Kafea, garagardoa...?

MARTIN Horrek zerbait esan nahi ote du?

ELENA “Horrek”, zerk?

MARTIN Ahaztu egiten zaidala dena.

ELENA Bai zera. Gauza gehiegi dituzu buruan, hori da dena. Baina komenigarria litzateke txeko bat egitea. Gure medikuaren izena gogoratzen baduzu, noski.

MARTIN Niko!

ELENA Primeran!

MARTIN (*Bere artean*) Nola ahaztu? Inork ez dauka-ta munduan Niko izeneko medikurik. (*Jarrera-aldaketa*) Ze arraio gertatzen ari zait?

ELENA Berrogeita hamarrak bete dituzula.

MARTIN Horretaz aparte.

ELENA Zer esan nahi duzu, betiko susmo txarra agertu zaizula? (*Hurbildu egiten zaio*) Seigarren zentzumena hizketan ari zaizu?: “Orain ondo baino hobeto doa dena; beraz, laster okertuko da”.

MARTIN (*Serio*) Litekeena da.

ELENA Nola izena dut?

MARTIN Zer?

ELENA Nor naiz ni?

MARTIN Zu? Zu nire maite kuttuna zara, nire seme zoragarri eta trumoi samarraren ama, nire jolas-laguna, nire sukaldaria, nire whisky-botilak ezkututzen dituen.

ELENA Oso ondo. Baina, zein da nire izena?

MARTIN Eeee... Elena?

ELENA Ondo. Luzea izango al da?

MARTIN Zer, amnesiarena?

ELENA Elkarrizketa.

MARTIN Ez dut uste. Enrikek esan zidanez, ez dit saio osoa eskainiko, zati bat besterik ez.

ELENA Eta zure berrogeita hamarrak aipatuko ditu?

MARTIN Nire berrogeita hamarrak. Esango al diot Alzheimerraren bidean nagoela? Gogoratzen banaiz, noski. (*Eseri*)

ELENA Zu ez zaude inongo bidean.

MARTIN A, ez?

ELENA Bihotza, burua sasoi betean daukazu oraindik. Eta bere tokian, lepo gainean.

MARTIN (*Serio*) Gazteegia naiz, ezta?

ELENA Tira.

MARTIN Alzheimerrak jota egoteko.

ELENA Ederra da oraindik "gazteegia" izatea zerbaitetarako, ezta? (*Martinen magalean eseri. Domina lepoan jarri*)

MARTIN (*Burua beste nonbait*) Bai.

ELENA Gogoratu txistea: izena baldin badakizu, halakorik ez daukazu seinale". (*Usainduz*) Non ibili zara?

MARTIN Ze... ze ordutan etorriko dira?

ELENA Ez dakit. Laster esan duzu. Aurkitu duzu, azkenean?

MARTIN Zer?

ELENA Bizar-makina.

MARTIN Ez; auskalo non ote dagoen.

ELENA Hobe zenuke bizarra egitea elkarrizketa egin aurretik. (*Berokia jantzi*)

MARTIN (*Txartel bat ateratzen du*) Eta hau? Ze arraio da hau? "Maitane Iturbe. Produkzio exekutiboa" Ez dago zenbakirik, ez helbide elektronikorik.

ELENA Maitane Iturbe. Produkzio exekutiboa?

MARTIN Norbaitek holako bat ematen didanean, suposatzen da nik ere beste bat eman behar diodala trukean, baina ez baitaukat... (*Errieta eginez bezala*) Batzuetan, ez da gozoa izaten.

ELENA Esan nizun txartelak egin behar dituzula.

MARTIN Ez dut nahi, ordea.

ELENA Ba, ez egin.

(*JULEN sartzen da. Kaxa bat dakar*)

JULEN Ama, festarako platerak ekarri dituzte.

ELENA Utzi hor mahai gainean.

JULEN Bueno... banoa.

ELENA eta **MARTIN** Agur.

(*JULENek eskua luzatzen die*)

MARTIN (*Elenari*) Badakizu zertan garen igualak erregea, lehendakaria eta ni? Ez dugu inoiz sosik eramaten patrikan.

JULEN Ikusi duzue ze argi polita? (*Hurbildu hesira eta eskuak zikintzen ditu*) Kaka. Abisatzea zenuten! Zergatik jarri dituzu loreontziak pintura lehortu gabe baldin badago?

ELENA Barandari hobeto eusteko. Pinturak kolaren lana egiten du.

MARTIN Sekula entzun gabe nengoen holako txorakeririk. (*Eseri*)

JULEN Festa batera noa. Ze joango naiz puntual ala txukun?

(*Elenak dirua ematen dio Juleni. Julen kanpora doa. Martin eseri egiten da*)

ELENA Nor da emakume hori?

MARTIN Ze emakume?

ELENA Maitane Iturbe. Produkzio exekutiboa.

MARTIN A!

ELENA Usain ona dauka?

MARTIN Ez dakit. Arrastorik ere ez daukat zein izan daitekeen.
(*Gaia aldatuz*) Guapo nago? (*Altxatu*)

ELENA Telebistarako? Bai.

MARTIN Benetan?

ELENA Baietz ba. Izugarri guapoa.

(*Musua. Barre egiten dute biek. Ateko txirrina entzuten da*)

MARTIN Akabo txantxak! (*Eseri egiten da*)

ELENA Emakume horrekin segitzeko asmoa baldin baduzu, hitz egin beharko dugu.

MARTIN Emakume hori existituko balitz, hitz egin beharko genuke, noski.

ELENA Maitane Iturbe ilehori horietako bat izango da, zure adinaren erdira ere iristen ez dena. "Jogurcito" bat.

MARTIN Edo okerrago oraindik, zu bezalako bat: azkarra, ausarta, sexia; baina estreinatu gabea.

ELENA Zuri denek balio dizute, ezta?

MARTIN Ba, bai.

(*Txirrina entzuten da berriro. Martin atea zabaltzera abiatzen da. Elenak besotik heldu eta buelta emanarazten dio. Ondoren datorren elkarrizketa gaztelaniaz egingo da, antzezpen-tonuan, Venezuelako kulebroien estiloa imitatu nahian*)

ELENA Algo sucede, Eduardo Martín.

MARTIN ¡Sí! Lo siento, María Elena.

ELENA Dime la verdad.

MARTIN Me enamoré.

ELENA ¡Lo sabía!

MARTIN Desesperadamente.

ELENA ¡Lo sabía!

MARTIN Luché contra este sentimiento con todas mis fuerzas.

ELENA ¡Oh, pobre criatura, cuánto debiste sufrir!

MARTIN Con todas mis fuerzas, María Elena, con todas mis fuerzas.

ELENA Cuéntamelo todo, Eduardo Martín.

MARTIN No puedo, María Elena. No puedo.

ELENA Por el amor de Dios, Eduardo Martín, cuéntamelo.

MARTIN ¡Se llama Silvia!

ELENA ¡Oh, cielos! ¡Silvia! ¿Quién es Silvia, Eduardo Martín?

MARTIN Una cabra, María Elena. Silvia es una cabra. (*Biak barrez*)

ELENA ¿Una cabra? Mundiala zara gero! (*Irten egiten da*)

MARTIN (*Domina kendu. Petaka hartu eta edan*) Horixe mundiala.

ENRIKE (*Offean*) Kaixo, polita.

(*ENRIKE sartzen da eszenan*)

ENRIKE Kaixo, aitona!

MARTIN Hi, berrogeita hamar!! Berrogeita hamar besterik ez!

ENRIKE Sasoirik onena duk. Samurtasunaren urteak.

MARTIN Hoa pikutara. (*Eseri egiten da*)

ENRIKE Lore ederrak. Zer dira?

MARTIN *Ranunculus* sorta bat.

ENRIKE *Raskakulus*... Hi jarriko haiz... Hortxe. Zoriontsu egiten hau aulki horrek?

MARTIN Zoriontsu egiten nauen aulki honek? Ez diat uste inoiz eseri naizenik. (*ELENARI*) Eseri naiz inoiz aulki honetan?

ELENA Bai, Enrike zure azken programa egitera etorri zenean.

MARTIN A. Baina zoriontsu egin ninduen?

ELENA Buf, gehiegi niretzat. (*Elenak domina jartzen dio*) Ez kendu. (*Aterantz*)

MARTIN Nora zoaz?

ELENA Kalera.

MARTIN Etxean geratuko gara afalondoan?

ELENA Bai, noski. Lepoa egingo nuke Julenek gau-pasa egingo duela.

MARTIN Harritzekoa!

ELENA Baina gu hemen geratuko gara. Goxo-goxo biok, telebista aurrean. Masajea hartzera noa, eta bueltan pentsu pixka bat erosiko dut. (*Irten egiten da, barrez*)

ENRIKE Zer esan du erosiko duela?

MARTIN Ezer ez; txorakeri bat. (*Domina kendu*) Ez al dator hire ekipoko beste inor?

ENRIKE Ez, ni bakarrik. Orain tramankulu hauekin, ez diat inoren premiarik. Prest itaunketarako?

MARTIN Nahi duanean. (*Izena eskuan irakurriz*) Zer moduz dago Asier? Gizon puska eginda egongo duk, ezta?

ENRIKE Zein, duela astebete-ia lo besterik egiten ez zuen umemokoa hemen altzoan jarrita?

MARTIN Hitz polita. Altzoa.

ENRIKE Hamasei urte bete dituela onartu ezin dudan hori?

MARTIN Bai, hori.

ENRIKE Ziztu bizian erretirora bultzatzen nauen hori?

- MARTIN** Horixe bera.
- ENRIKE** Ondo; ondo zegok. Bai. Aurrekoan galdetu zidaan zergatik ez daukan anai-arrebarik. Esan nioan lehen aldian ondo egin banuen, ez neukala berriro saiatzeko premiarik.
- MARTIN** Eta gustatu al zitzaien erantzuna?
- ENRIKE** Hala uste diat. Ez nioan kontatu Unibertsitatean konpromisoa hartu genuela guztiok seme-alaba bana ekartzeko, badakik erantzukizunik ez izateko munduko biztanle-kopuruaren hazkunderan. Eta zuena?
- MARTIN** Hamazazpi urte bete zizkian aurreko astean. Mutil zoragarria gure Julen. Hain guapoa. Hain bizkorra. Hain homosexuala.
- ENRIKE** (*Audio probak*) Zer?
- MARTIN** Hain homosexuala.
- ENRIKE** Berriro.
- MARTIN** Hain marikoia.
- ENRIKE** Audioa primeran. Martin, bizitzaren fase bat baino ez duk.
- MARTIN** Ja.
- ENRIKE** Izan duzue aita-semeen artean eduki beharreko elkarrizketa?
- MARTIN** Ze elkarrizketa? “Lasai, pasako zaik hire ametsetako neska aurkitutakoan”. Hori esan nahi duk? Ba ez, ez nauk hain baboa. Eta Julen ere ez. Bakarrik galdetu zioat seguru ote dagoen. Eta baietz, txoratzen dagoela.
- ENRIKE** Horixe dagoela txoratzen. Ligatzen ibiliko duk ero moduan. Ez kezkatu.
- MARTIN** Kezkatu, zertaz?
- ENRIKE** Hamazazpirekin, hori bizitzaren fase bat baino ez duk.

MARTIN Bai. (*Sarkastiko*) Ilargiarena bezala, ezta? Baina hemen ez zegok jakiterik ilgora edo ilbehera den.

ENRIKE Edozein momentutan aterako dik barruan daraman arra, denbora-kontua duk.

MARTIN Ja. Eta nondik aterako du? Armairua aspaldi hustu zian. Ikusi al duk ze argi polita dagoen?

ENRIKE A, bai.

MARTIN Beidazak barandatik.

ENRIKE Elenak zertarako erosi behar du pentsua?

MARTIN Elenak ez dik pentsurik erosi behar.

ENRIKE Orduan, zergatik esan du...?

MARTIN Broma zuan.

ENRIKE Zuen arteko broma?

MARTIN Ez, hau berria duk. Berri-berria.

ENRIKE Oso ondo. Martin, hasi egingo gaituk. (*Domina jartzen dio. Eseri*) Hi lasai egon, natural. Erakutsi nolakoa haizen.

MARTIN Natural. Hola? (*Aulkian erdi etzanda eserita*)

ENRIKE Bueno, hobe ez. Erakutsi hire alde atsegina. Hire irudi publikoa.

MARTIN Oso ondo!! OK!!

ENRIKE Eta ez aldatu elkarrizketa erdian.

MARTIN Baietz! Bost. lau...

ENRIKE (*Aurkezle-ahotsarekin*)

Bost, lau, hiru. Gabon. Ongi etorri beste behin ere *Inporta duen jendea* saiora. Gaur gurekin dugu Martin Garai arkitektoa, gizon bitxia benetan. Bueno, esan dezagun pertsona batzuk... Bereziak direla esan behar nuen, baina hitz hori oso txatxua da; izan ere,

estimatzen dutenentzat pertsona bakoitza da berezia, ezta?

MARTIN Oso txatxua, bai.

ENRIKE Baina beste pertsona batzuk askoz gehiago inporta digute, eragin zuzena dutelako gure bizitzan: aberastu egiten gaituzte, jakintsuagoak eta hobeak egiten gaituzte. (*Martin aharrausika*) Martin Garai pertsona horietako bat da. Gabon, Martin. (*Kameraz grabatzen hasten da*)

MARTIN Kaixo. Zer moduz?

ENRIKE Aste honetan, hiru gauza gertatu zaizkizu.

MARTIN A, bai?

ENRIKE Batetik, Pritzker saria eman dizute, Arkitekturaren Nobelaren antzekoa, eta zeu zara sari ospetsu hori jasotzen duen pertsonarik gazteena eta estatuko lehen arkitektoa.

MARTIN Ez, lehena Moneo izan zen.

ENRIKE Bueno, baina bai gazteena.

MARTIN Ez, gazteena Zaha Hadid izan zen, irakiarra.

ENRIKE Oso ondo. Bigarrenik, zure proiektua aukeratua izan da “Hiri Unibertsala” egitasmoa gauzatzeko. Etorkizuneko hiri ametsezkoa izango da, 27.000 milioi dolarrekoa, enpresa teknologiko eta elektroniko garrantzitsuek finantzatua eta Estatu Batuen mendebaldean eraikiko dena, gaur egun gari-soro zabalak dauden tokian, Illinois estatuan.

MARTIN (*Baiezkoa buruarekin*)

ENRIKE Eta, amaitzeko... aste honetan ere, berrogeita hamar urte bete dituzu. Zorionak denagatik. Bejondeizula, Martin!

MARTIN Eskerrik asko.

ENRIKE Aste ederra, e, Martin!

MARTIN Bai. Ederra, bai.

ENRIKE Zer moduz daramazu?

MARTIN Berrogeita hamarrak?

ENRIKE Ez. Dena oro har.

MARTIN A. Bueno...

ENRIKE Hunkigarria izan behar du.

MARTIN Berrogeita hamar urte betetzea? Ez, batere ere.

ENRIKE Ez! Gainerakoa! Hiri Unibertsala! Pritzker saria!

MARTIN Bai, hunkigarria.

ENRIKE Hain gaztea izanda...

MARTIN Berrogeita hamar, gaztea?

ENRIKE Pritzker sariagatik ari naiz jakina! Nola jakin zenuen? Non zeunden esan zizutenean?

MARTIN Gimnasioan. Larrugorritan. Dutxan sartu behar nuen eta Elenak deitu zidan.

ENRIKE Elena zure emaztea da.

MARTIN Badakit.

ENRIKE Eta zer iruditzen zaizu?

MARTIN Elena?

ENRIKE Ez! Saria.

MARTIN A! Ondo. Poza eman zidan.

ENRIKE Harritu egin zintuen!

MARTIN Ez.

ENRIKE Ez?

MARTIN Zurrumurruren bat entzunda nengoen.

ENRIKE Baina pozgarria izan zen, ezta?

MARTIN Bai.

ENRIKE Kontaiguzu zerbait Hiri Unibertsal horretaz.

MARTIN Tira, zerorrek esan duzu. 27.000 milioi dolarreko proiektua da, Estatu Batuetan, lehen gari-soro zabalak zeuden tokian, Kansas estatuan; ez, Arkansas. Edo Texas?

ENRIKE Illinois?

MARTIN Bai, Illinois. Hori da, Illinois.

ENRIKE Esan dezakegu arrakastaren gailurrean zaudela.

MARTIN Zer esan nahi duzu, hemendik aurrera maldan behera joango naizela?

ENRIKE Moztu! Moztu! (*Kamera itzaltzen du*) Hi, zer daukax?

MARTIN Zer?

ENRIKE Hau ezin duk telebistan eman! Jaitsi hadi hodeietatik! Hemendik mila kilometrora hago!

MARTIN Ni?

ENRIKE Nahi duk berriro saiatzea?

MARTIN Zertan?

ENRIKE Jode, elkarrizketa egiten! Grabazioa! Hi, grabatzen ari gintuan!

MARTIN Bai, bazekiat.

ENRIKE Zerbait gertatzen zaik?

MARTIN Bai.

ENRIKE (*Aulkia Martinen ondora eramán*) Hitz egin nahi duk?

MARTIN Hitz egin, zertaz?

ENRIKE Buruan daukaan kezka.

MARTIN Eta ze kezka daukat ba buruan?

ENRIKE Oraintxe esan duk zerbait gertatzen zaiala, kezka bat daukaala...

MARTIN Nik?

ENRIKE Duela hogeita hamar urte ezagutzen diagu elkar...

MARTIN Bai. Eta horrek eskubide bereziren bat ematen dik?

ENRIKE Hire lagun zaharra nauk...

MARTIN Ez. Hori nire institutuko irakaslea duk, Estetika ematen ziguna. Oraindik ere elkartzen gaituk noizean behin. Hi baino askoz zaharragoa duk; laurogei zeuzkak ia.

ENRIKE Baina ni nauk hire lagunik aspaldikoena.

MARTIN Ezta. Nire izaba Sarak ezagutzen naiz orain dela...

ENRIKE Hire izaba Sara ez duk hire laguna!

MARTIN Zergatik ez?

ENRIKE Ba, ez delako; hire senidea delako. Eta senideak senideak dituk, eta ez lagunak.

MARTIN (Bueno,) nondik begiratzen duan.

ENRIKE Ez duk gauza bera senidea izatea edo laguna.

MARTIN Konforme. Hi haiz nire lehen laguna. Bai. Eta, zer dauka horrek berezirik?

ENRIKE Garbi zegok hik arazoren bat daukaala, eta ni naizenez hire lagunik onena eta lehena, ba, balitekek gai izatea...

MARTIN Hik uste duk nik arazoren bat daukadala?

ENRIKE Oraintxe esan duk zerbaitek kezkatu egiten huela.

MARTIN Hori esan al dut?

ENRIKE Baina zergatik haiz hain... hain...?

MARTIN Grabatzen ari haiz oraindik?

ENRIKE Ez.

MARTIN (*Domina kendu*) Altxatu egingo nauk, bai?

ENRIKE Bai, noski. Gustura ez bahago...

MARTIN Zergatik hitz egiten didak ergela banintz bezala?

ENRIKE Balitekek hau izatea hire bizitzako asterik inportanteena. (*Martin hesi aldera*) Eta hire portaera ikusita, ematen dik ez dakiala non hagoen.

MARTIN Beharbada, maitemina izango duk, edo... (*Eskuak zikintzen ditu*) Kaka.

ENRIKE Beharbada, zer?

MARTIN Ergelen moduan portatzea.

ENRIKE Hik gona-konturen bat daukak!

MARTIN Ixo!

ENRIKE Ederki. Ez daukak gona-konturik. Orduan, ze arraio gertatzen zaik gaur, Martin?

MARTIN Hi, hi... esnob hutsa haiz! Hire ideia ezkertiarrekin eta hire iragan progreairekin... Itxura besterik ez.

ENRIKE Lagun onak gaituk, Martin, gogoratzen?

MARTIN Eta horrek zer esan nahi du?

ENRIKE Elkar maite dugula.

MARTIN Aaaaa!

ENRIKE Izugarri, gainera.

MARTIN Jesus! Barkazak. Bakean utziko haut. Eta zein zirikatuko diat, orduan?

ENRIKE Elena, adibidez?

MARTIN Elenari ez zaiok batere gustatzen. Hori dik akats bakarra. "Martin, ez hasi ni zirikatzen".

ENRIKE Pena. Orduan, maiteminduta hago.

MARTIN Elenarekin? Jakina! Hogeita bi urte dagoeneko.

ENRIKE Ez, ez. Esan duk maiteminduta hagoela Elena ez beste batekin. Hori ulertu diat.

MARTIN Bai? Ez nauk gogoratzen.

ENRIKE Badakik zer, Martin? Bost axola zaidak!

MARTIN Zertan ari haiz?

ENRIKE Nire gauzak jasotzen ari nauk, baita nire ideia ezkertiarak eta nire iragan... nola esan duk?

MARTIN ... progrea.

ENRIKE Hori duk. Baita nire iragan progrea ere, eta ospa egingo diat hemendik.

MARTIN Nora hoa?

ENRIKE Aizak, elkarrizketa puta bat egitera etorri nauk.

MARTIN Eta?

ENRIKE ... hire egoa elikatzeko, pentsatzen diat.

MARTIN Nik ez zeukaat egorik.

ENRIKE Ez, kaka! Hire egoa elikatzeko, ohiko mailatik gora gainera, eta hik zer egingo eta dena izorratu.

MARTIN Jesus. A ze mingain zikina, motel. Oso hitz zatarrak esan dituk azken bost minutuan: puta, kaka, izorratu...

ENRIKE Eta hik bat ere ez; bueno, bat bakarrik: "Jesus".

MARTIN Zer nahi duk kontatzea?

ENRIKE Hire abentura berria.

MARTIN A, hori!

ENRIKE Bai, hori.

MARTIN Ez zekiat nahi ote dudan.

ENRIKE Bai, nahi duk.

MARTIN Ez zekiat ahal ote dudan.

ENRIKE Saiatu hadi.

MARTIN Kaskagorra haiz, gero!

ENRIKE Bai eta hire lagunik onena.

MARTIN Ez zekiat inoiz... Sekula ez nian pentsatuko... Elena eta biok... Bai zera.

ENRIKE Kontatu behar didak, bai edo ez?

MARTIN Ari nauk.

ENRIKE A! Oso ondo.

MARTIN Ez nian sekula pentsatuko horrelako zerbait gerta zitekeenik. Elena eta biok beti egon gaituk oso ondo elkarrekin. Oso ondo moldatu gaituk beti elkarrekin, ohean, eta ohetik kanpo; egia esan zioagu beti elkarri. Errespetu handiz. Ezkondu ginenetik, ez diat sekula engainatu. Ezta pentsamenduan ere. Eta eginean zer esanik ez.

ENRIKE Zoragarria duk, baina... *En fin!*

MARTIN Bai: *En fin!* Bueno, pare bat "igurtzi" monumenturen bati, festaren batean, ordu txikitan... Eta balitekek inoiz esku bat irristatu izana, edo biak, izterren batean... edo bitan, baina ez diat sekula ezer egin. Sekula ez. Ulertzen?

ENRIKE Bai, noski. Ulertu diat.

MARTIN Ez diat inoiz premiarik izan konparazioak egiten hasteko. Gogoan duk ikaskide izandakoak elkartu ginen hartan asteburua elkarrekin pasatzeko nola erabaki genuen beteranoek emandako telefono batera deitzea?

ENRIKE "Naomi eta Vanesa, diskrezio osoa".

MARTIN Eta hik deitu egin huen, kabroi horrek.

ENRIKE ... eta pare bat bollycao agertu zituan... eta gelara igo genizkian...

MARTIN Gogoan duk zer gertatu zen han?

ENRIKE Ez. Zer gertatu zen?

MARTIN Ezin izan nuela. Ez nian ezer egin. Ez zitzaidaan... (altxatu)

ENRIKE Hi Elenarekin hengoen jada.

MARTIN Hori duk. Elenarekin maiteminduta nengoan, baina ez nekian zenbateraino.

ENRIKE Ederra teoria: bihotzak zakila gobernatzan dik. Beti pentsatu izan diat zakila zela benetako komandantea.

MARTIN Ez hadi zinikoa izan.

ENRIKE A, begira, hau berria duk. Ezkertiarra, progrea, esnoba eta zinikoa.

MARTIN Konturatzen al haiz? Elenarekin seko maiteminduta nagok. Harena nauk oso-osorik. Hara, etxetik kanpo nabilenean, bidaiaren batean, bakarrik nagoenean eta gogoia sentitzen dudanean...

ENRIKE Kanpaia jotzen duk Elenarekin pentsatuz. Elena eta hi, biak goxoki...

MARTIN Bai.

ENRIKE Oso erromantikoa! Eta nola izorratu duk?

MARTIN Zer izorratu dut, ba?

ENRIKE Hire bizitza. Dirudienez, dena izorratu duk.

MARTIN A. Hori. Bueno, ba... Behin...

ENRIKE Bai?

MARTIN Egun batean...

ENRIKE Zer? (*Petaka hartu eta Martini eman*)

MARTIN Eskerrik asko. (*Bi trago hartu*) Behin, baserri baten bila nembilean mendian. Elenak eta biok erabakita genian huraxe zela une egokia etxetxo bat erosteko hiritik kanpora. Baserri koskor bat. Merezi genian. Eta

orduan... autoa hartu eta Elizondo aldera jo nian. Elenak ez zian nirekin etortzerik izan.

ENRIKE Mendian.

MARTIN Bai, mendian. Leku zoragarri bat topatu nian, baserri zahar bat, lur-sail eder batean.

ENRIKE Arkadiarako itzulera.

MARTIN Hori duk. Elenari hots egin nioan esateko ikustera joan behar zuela, eta gordetzeko eskatuko niela jabeei berak ikusi arte. Eta Elenak esan zian: "Nola baserri zahar bat?". Eta nik: "Zaharra ez, antzinakoa. Itxoin ikusi arte". Eta autoan sartu ninduan berriro etxera bueltatzeko. Baina autopista hartu aurretik, muino baten gainean gelditu ninduan. Bista zoragarria zuan. Ez, zoragarria ez; guztiz liluragarria. Udazken betea, dena orbelez estalia, eta herrixka bat han behean. Hodeiak mantso-mantso mugitzen zituan, eta mendiko usain gozo haiek...

ENRIKE Bai, simaurra eta halakoak.

MARTIN Bai! Eta garoa, menda belarra... Eta baratzetan, lekak, tomateak, tipulinak...

ENRIKE ... patatak, pepinoak, porruak, azak, kalabazak...

MARTIN Bai, eta handik goitik, baserriraino doazen bidezidorrak ikusten zituan eta zirrara bat sentitu nian, beldurraren antzekoa baina atsegina.

ENRIKE Portaera zentzugabe eta inkongruente bati dagokion bezala.

MARTIN Bai. Baina bueltan nentorrela, bide-bazterretik oinez... hantxe ikusi nian. Han zegoan... niri begira bere begi haiekin.

ENRIKE *Kutsidazuko* Ixabel ederra! Bere adats hori basatia bizkarretik behera, bere titi mardulak korpiño barruan gordeta, sabela airean, urre koloreko biloa zilborraren inguruan, lasto-izpi bat hortz artean...

MARTIN Ez.

ENRIKE Ez? Ez da ilehoria? Ez dauzka titi mardulak?

MARTIN Ez. Eta han zegoan, niri begira bere begi haiekin...

ENRIKE Eta maitasuna sortu zuan.

MARTIN Bai; maitasuna zuan, baina nik ez nekian oraindik. (*Bere artean*) Nola jakingo nian.

ENRIKE Ja. Une hartan, libido-atake bat izan huen eta...

MARTIN Ez duk ulertzen. Ez zekiat benetan zer sentitu nuen une hartan. Ez zeukaan zer ikusirik ordura arte sentitutako ezerekin; bat-batekoa izan zuan, izugarria! Han zegoan bera niri begira bere begi haiekin...

ENRIKE Eta hitz egin hion?

MARTIN Bai. Bai, hitz egin nioan. Harengana hurbildu eta hitz egin nioan, bai, eta bera niregana etorri zuan, eta... begi haiek... begirada hura... Aurpegia ukitu nioan, eta... Ez diat horretaz hitz egin nahi; ezin diat.

ENRIKE Oso ondo; utzidak laguntzen. Harremanetan hasi haiz berarekin.

MARTIN Bai, bai. Harremanetan hasi gaituk.

ENRIKE Larrua jotzen diok!

MARTIN Bai, bai. Larrutan egiten diagu.

ENRIKE Eta maitemindu egin haiz.

MARTIN Bai. Noizean behin egoten gaituk. Bai, abentura bat diagu. Ez! Hori ez duk hitz egokia. Nik... larrua jotzen zioat, hik esan duan bezala.

ENRIKE Maitemindu egin haiz!

MARTIN Bai! Silviarekin maiteminduta nagok!

ENRIKE Silvia. Nor da Silvia?

MARTIN Ezin diat esan.

ENRIKE Eta nori esango diok bestela? Elenari?

MARTIN Ez!!

ENRIKE Nor da Silvia?... Nor da Silvia?

(MARTINek mugikorra atera, argazkia bilatu eta ENRIKEri ematen dio)

MARTIN Etzak barrerik egin. Mesedez, etzak barrerik egin.

ENRIKE Okerreko argazkia eman didak.

MARTIN Ez.

ENRIKE Hau duk Silvia?

MARTIN *(Baiezkoa buruaz)*

ENRIKE Silvia honekin ari haiz...

MARTIN *(Baiezkoa)*

ENRIKE Noiztik?

MARTIN Sei hilabetetik hona.

ENRIKE Jainkoarren!! Elenari esan behar diok.

MARTIN Ez! Ezin zioat hori egin!

ENRIKE Hik esaten ez badiok, neuk esango zioat.

MARTIN Ez! Ez, Enrike! Mesedez, ez!

ENRIKE Hau oso arazo larria duk.

MARTIN Bai, ezta?

ENRIKE Ez zegok dudarik, bat ere ez. *(Garrasika)* HAU AHUNTZA DUK! HARREMANETAN HASI HAIZ AHUNTZ BATEKIN! LARRUA JOTZEN DIOK AHUNTZ BATI!

MARTIN *(Baiezkoa buruaz)*

ILUN

2. EKITALDIA

(Itzal txinatarra: ELENA Enrikeren gutuna irakurtzen ari da. Barre-
algara entzuten da)

(Espazio bera, biharamun-gauean. MARTIN eta JULEN. JULENek
gutuna du eskuan. MARTIN bizikleta estatikoan)

2.1

JULEN Ahuntz bati jotzen diozu larrua?

MARTIN Julen, mesedez!

JULEN Ostia!

MARTIN Hitz egintzak ondo.

JULEN Ondo, nola?

MARTIN Etzak biraorik bota; gazteegia haiz.

(ELENA sartzen da)

JULEN Ahuntz puta bati jotzen diozu larrua eta biraorik ez
botatzeko esaten didazu?

MARTIN Hire bizitza sexuala ere ez duk oso...

JULEN Nik behintzat pertsonekin jotzen dut! Ahuntz-larrutero
zikina!

MARTIN Marikoi zikina!

JULEN Marikoi zikina deitu didazu?

MARTIN Julen, sentitzen diat. Homosexuala haiz, eta oso ondo
iruditzen zaidak; bost axola niri hik zer egiten duan.
Alegia, berdin zaidala zer haizen, hori esan nahi diat.

JULEN Bai! Seguru!

ELENA Zure aitak sentitzen du marikoi zikina deitu izana. Berak
ez du hola pentsatzen. Gizon zintzoa da, liberala,
aurrerakoia, talentuduna, famatua, ondo hazitakoa,
atsegina... Eta orain, antza denez, (gutuna hartzen dio

JULENI) ahuntz batekin ibiltzen da larrutan. Eta nik horretaz hitz egin nahi dut, axola ez badizue, behintzat. Eta axola badizue ere berdin. Azter dezagun Enrikeren gutuna, konforme?

MARTIN Nola liteke? Nola liteke Enrikek halako putakeria egitea?

ELENA Nola liteke gure lagunik onenak... Emaztea ere lasai asko utziko zenuke-ta haren eskuetan.

MARTIN Ba, bai!

ELENA Nola liteke Enrike gai izatea niri halako gutuna idazteko?

MARTIN Bai.

ELENA "Maite zaitudalako, Elena, Martin maite dudan bezainbat, izugarri maite zaituztedalako biak, eta izugarri errespetatzen zaituztedalako, ezin naiz isilik geratu zuen bikoteak bizi duen krisialdi honetan. Martinen irudi publikoagatik eta zuri nire leialtasun sakona agertu nahi... (dizudalako)"

MARTIN Faltsu alena!

ELENA Bueno, dena dela, errealitatea onartu beharra daukagu: Enrikek gutun hau idatzi du, eta nik irakurri egin dut. Eta orain ezin dugu ez-ikusiarena egin.

MARTIN Ez noski.

ELENA Eta Enrikek hemen gauza asko kontatzen ditu. Berak dioenez, zerbait daukazu Silvia izeneko batekin. Nola dio? Bai, hemen (*irakurri egiten du*): "Martinek abentura dauka Silvia delako batekin, eta izugarri mingarria bazait ere, esan behar dizut Silvia hori ahuntza dela".

JULEN Ostia!!

ELENA eta **MARTIN** Lasai, Julen.

JULEN Bai. Bai. Baina ostia!

ELENA (*Irakurriz*) “Hori jakiteak, noski, izugarri larrituko zaitu; baina iruditu zait neure eginkizuna zela albiste desatsegin honen berri ematea.”

MARTIN Albistea?

ELENA Bai. “Albistea”

MARTIN Ostia!

ELENA “Izan ere, pentsatzen dut nahiago izango duzula lagun fidel baten ahotik jakin.” Zeinek esan behar zidan, bestela? (*MARTIN hurbiltzen zaio*) Animaliak babesteko elkarteak?

MARTIN Elena...

ELENA Ez hurbildu, ez hurbildu. Ahuntz-usaina daukazu-ta, kaka-usaina, eta auskalo ze beste usain nazkagarri pila izango ote duzun. (*JULEN hurbiltzen zaio*) Ez nigana hurbildu!

MARTIN Nik maite zaitut.

ELENA Maite nauzu?! Ea ulertzen dudan esaldi horren esanahia. Zuk maite nauzu?

MARTIN Bai.

ELENA Baina ni pertsona bat naiz, gizaki bat; bi bular baino ez ditut; bi hankatan baino ez nabil; esnea ere oso egoera berezietan baino ez dut ematen; komuna erabiltzen dut. Eta zuk maite nauzu? Ez dut ulertzen.

MARTIN Joder!

JULEN Ahuntz bati jotzen diozu larrua!

MARTIN Kito! Ospa hemendik!!

JULEN zer esan dut?

MARTIN Nahikoa duk!! Hoa hire koartora!

JULEN Nire koartora?

MARTIN Hoa hire koartora!!

JULEN Ze uste duzu, bost urte ditudala, nire koartora bidaltzeko, ala?

ELENA Hobe duzu joatea, Julen. Hemen gelditzen bazara, komeni ez zaizkizun gauzak ikasiko dituzu-ta.

JULEN Zer nahi duzu, zu hemen uztea bakar-bakarrik... perbertitu horrekin?

ELENA Zoaz zure koartora, Julen, edo kalera nahi baduzu, edo...

MARTIN ... edo hoa popatik hartzera hain gustukoak dituan taberna-zulo horietako batera!

JULEN Antza denez, asko dakizu zuk zulo horiei buruz.

MARTIN Oso ilustratua izan nauk beti.

JULEN Jakina. (*ELENA*ri) Banoa, ama. Zuk hala nahi baduzu, banoa. (*MARTIN*i) Baina ez zuk hain ongi ezagutzen omen dituzun zulo horietara. Beharbada, nire koartora igoko naiz, eta giltzarekin itxiko dut atea; eta, beharbada, ohean etzan eta negarrez hasiko naiz; eta baliteke oihuka ere hastera amorruez eta minez. Baina litekeena da zuek ez entzutea, ez batak ez bestea, lanpetuegi ibiliko zaretelako biak batak bestea akatzen.

MARTIN Oso ondo.

ELENA Bai, Julen. Oso ondo.

(*JULEN etxean sartzen da*)

<i>ILUN</i>

2.2

ELENA Lehen erosketak egitera joan naiz. Eskularru batzuk erosi ditut, antxume-larraz eginak, interesa baduzu. Noizean behin erabiltzen ditut, ezkontzetarako eta hola.

MARTIN Zein ezkonduko da, ba?

ELENA ZAUDE ISILIK! Eskularru batzuk; gero merkatura joan naiz, legatz pare bat erostera; etxera iritsi naiz, eta zu ez zeunden, eta entzun dut Julenek musika topera jarrita zeukala bere koartoran; eta posta ikusi dut.

“Enrikeren gutun bat? Enrike? Zertarako idatzi ote dit?”
Legatzak hozkailuan utzi, sukaldetik irten, zure whisky-
botila ezkutatu, egongela gurutzatu eta, eskailetan
gora nindoala, gutuna irakurtzen hasi naiz.

MARTIN Enrikek ez zuen halakorik egin behar. Ondotxo daki hori!

ELENA “Elena maitea:”

MARTIN Dios!

ELENA “Hau da inoiz idatzi behar izan dudan gutunik zailena”.

MARTIN Seguru!

ELENA “Martinek abentura dauka Silvia delako batekin”
Eskerrak pentsatu dut; ezaguna behintzat ez da; ez da
behintzat Enrikeren lehenengo emaztea, bera baitzen,
nire ustez, aukera gehien zuena...

MARTIN Rebeca?

ELENA Bai, edo zure laguntzailea agian...

MARTIN Zein? Jaione?

ELENA Ez. Titi-handi hori.

MARTIN Idoia? Elena, mesedez...

ELENA Badakizu zer pentsatu dudan gutuna irakurri ondoren?

MARTIN Nahiago ez jakin.

ELENA Bueno, barre egin dut, jakina; broma krudela da, baina izugarri dibertigarria. “Gure Enrike hau! Oraingoan pasa egin zara. Ondo dago noizean behin umore makabro pixka bat. Baina hau gehiegi da. Hau onartezina da, Enrike!” Beraz, burua astindu eta barre egin dut. Hau neurrigabea delako, zentzugabea, ikaragarria; gauza batzuk hain dira ikaragarriak, barre egin beste irtenbiderik ez duzu. Eta bat-batean nire barrea entzutean, zergatik ari nintzen barrez galdetu diot nire buruari. “Ez da hain dibertigarria lainoetatik jaitsi eta hankak lurrean jartzen dituzunean, Enrike.” Zergatik ari nintzen barrez? Zerk eragiten zidan barregura? Eta,

bat-batean, gelditu egin naiz; barre egiteari utzi diot. Konturatu naiz ez zela broma bat. Neurrigabea eta zentzugabea zen, baina ez zen broma bat inolaz ere. Eta ulertzen hasi naiz dena: Enrike etorri zenean atzo elkarrizketa egitera, usain berezi hura, abentura bat zenuela antzeztu genuen kulebroiaren eszena hura, eta ahuntz batekin... Ozen eta garbi esan zenidan. Eta nik barre egin nuen. Esan egin zenidan! Letra guztiakin esan zenidan! Eta nik txantxetan esan nizun pentsu pixka bat eroatera nindoala.

MARTIN Elena...

ELENA Eta holaxe jakin dut. Eta gero, noski, sinistu egin dut. Jakitea... dena egia dela jakitea gauza bat da; baina sinistea... Bueno, hori da okerrena. Hori da gogorrena. Denok gaude, gutxi gorabehera, prestatuta astinaldiren bat jasotzeko aldian behin: bikote-arazoak, etxeko giro baketsua aldrebestea, gezurrak, aitzakiak, adar-kontuak... Nik ez dut inoiz abenturarik izan elkarrekin bizi izan ditugun urte guztietan. Ezta katu batekin ere. Ezta... ezerekin ere. Gure burua prestatzen dugu edozer gauza onartzeko; baita gauzarik txikienak ere; eta gai izango garela uste dugu, baina ez gara. Ez gara gai, ezta?

MARTIN Ez, ez gara.

ELENA Ez daukagu puta ideiarik ezertaz! Litekeena baita joko-arauetatik kanpo dagoen zerbait gertatzea. Heriotza, adibidez, jokoaren parte da, eta ager daiteke hiltzeko aukeraz pentsatzen hasteko ere prest egon baino lehen. Hemiplegia bat ere jokoaren parte da, eta zure senarra berenjena baten moduan utzi dezake, eta hortik aurrera txundituta biziko zara berenjenari begira. Edo bat-batean —ez da oso ohikoa, baina batzuetan gertatzen da—, zure senarra zure bularretakoak janzen hasten da. Baina bada gauza bat zure aurpegiaren aurrean eztanda egingo duela imajinatzeraz ere sekula helduko ez zarena, eta berdin dio oso gustu arraro, exotiko edo xebreak baldin badituzu, eta gauza hori bestialismoa da.

MARTIN Ez duzu ulertzen.

- ELENA** Animaliekin larrua jotzea! Hori ez duzu sekula pentsatu, aukera hori ez duzu inoiz kontuan hartu. "Bueno, amari hots egingo diot jakiteko aita noiz hasi ote zen ganadu artean korrika". Ez, orain arte ez zaizu bururatu ere egin halakorik pentsatzea. Bueno! Eta zuri nola joan zaizu eguna, laztana?
- MARTIN** Estudioan... eguna ondo joan da. Aldaketa txiki batzuk egin dizkiogu World Cityko diseinuari.
- ELENA** A. Oso ondo! Eta gero?
- MARTIN** Ba, autoa hartu eta etxera etorri naiz.
- ELENA** Nola! Ez zara bidean gelditu zure laguna ikusteko? Hala, laztan batzuk egingo zizkizun mingainarekin.
- MARTIN** Ez, Elena, mesedez.

ILUN

2.3

- ELENA** Martin, imajinatu duzu inoiz egun batean etxera iritsi, egongelan sartu eta konturatzen zarela ez duzula bizitzarik?
- MARTIN** (*Ezetz buruarekin*)
- ELENA** Uste dut hitz egin beharko genukeela oraintxe bertan. Hil egingo bazaitut, jakin nahi dut zehatz-mehatz zergatik. Xehetasun guztiak.
- MARTIN** Benetan nahi duzu?
- ELENA** Zer? Zu hil?
- MARTIN** Xehetasun guztiak jakin.
- ELENA** Ez! Ez dut nahi! Badakizu zer nahi dudan? Egun osoa birbobinatu eta berriro hasi. Pelikula atzerantz joatea nahi dut: EZ dut posta ikusi nahi sarreran; EZ dut ikusi nahi, oraindik EZ dudalako atea ireki; eta EZ ditut legatzak merkatuan erosi, oraindik EZ ditudalako eskularruak erosi, EZ bainaiz oraindik etxetik atera, EZ naizelako oraindik ohetik jaiki, EZ bainaiz oraindik esnatu!!! Baina ezin dudanez denboran atzera egin, dena jakin nahi dut. Pelikula bere ordena logikoan ikusi

nahi dut, hasi eta buka. Eta kontaidazu ez sinisteko moduan, mesedez, ez sinisteko moduan. (*Plater-kaxa eta trapuak putzura*)

MARTIN Zergatik ez duzu negar egiten?

ELENA Hau serioegia delako. Aizu, ahuntzek negar egiten dute?

MARTIN Ez dakit.

ELENA Nola, ez diozu oraindik negarra eragin? Baina, baina, nola liteke! Zer gertatzen ari zaizu?

MARTIN Elena, mesedez...

ELENA (*Munduarekin hizketan*) Ez da gai ahuntz bati negarra eragiteko ere. Ikusi al duzue ze zintzoa den? Haren semea, berriz, goian dago negar batean gu biok hizketan ari garen bitartean. Emazteak ere negar egingo luke gustura; baina ezin du halakorik egin. Eta zu ez zara gai ahuntz bati negarra eragiteko ere? Jesus!

(*ELENAk kaxa irekitzen du*)

MARTIN Ez dut esan gai ez naizenik; esan dut ez dudala egin.

ELENA Mundu honetako ahuntz guztiak oso zoriontsuak izango dira zurekin.

MARTIN Ezin dut elkarrizketa honekin jarraitu. Ez ditut halako gauzak entzun nahi zure ahotik. (*Aterantz*)

ELENA (*Bidea itxi*) Geldi hor! Zuk hizketan jarraituko duzu nirekin, hemen eta orain!

MARTIN Nondik hasiko gara?

ELENA Hasieratik! Zergatik deitzen diozu Silvia? Etiketa bat darama belarrarian grapatuta? Edo lagunek kantatzen diote: "Hementxe da gure Silvia / ahuntz bat ezin ederrago, / guk inbidia diogu / baina bera pozik dago"?

MARTIN Izen horixe etorri zitzaidan burura.

ELENA Ja. Ikusi zenuen gauza hori... ahuntz hori, eta pentsatu zenuen: "Hau Silvia da!". Edo zuzenean hitz egin zenion? "Kaixo, Silvia!" Aizu, nola demontre jakin zenuen "emea" zela? Tititxoak arrastaka zeuzkan simaurretan? A, badakit! Silvia ez da lehenengoa, ezta? Izan dira beste ahuntz batzuk ere.

MARTIN Lehena da. Eta bakarra. Baina zuk ezin duzu ulertu.

ELENA Ahaleginak egiten ari naiz botaka ez hasteko.

MARTIN Botagura daukazu?

ELENA Ez! Kontaidazu.

MARTIN Ba, Enrikeri esan nion bezala...

ELENA Ez! "Enrikeri esan nion bezala..." EZ! Niri! Niri esango didazun bezala!

MARTIN Bueno, edozein kasutan...

ELENA "Edozein kasutan" EZ! Kasu honetan! Ho-ne-tan!

MARTIN Enrikeri esan nion bezala...

ELENA Oso ondo: Enrikeri esan zenion bezala...

MARTIN Enrikeri esan nion bezala, mendira joan nintzen etxetxo baten bila gu biontzat.

ELENA Maiz joaten zinen mendira.

MARTIN Bueno, zure Utopia bilatzen ari bazara, zure Paradisua, zure Arkadia, ba...

ELENA Noski.

MARTIN Dena di-da aukeratzen duen horietakoa ez bazara, behintzat: "Hauxe, hauxe da gure etxea. Zenbat da?" Ba, bila ibili beharra dago bazterrik bazter. Ez urrutiegi, asfaltoaren "sindromerik" ez edukitzeko. Hiritik ordubetera gehienez ere. Mendirako bokazioa baldin baduzu...

ELENA "Mendirako bokazioa?"

MARTIN Zeuk esan zenuen-da: “Berdea, berdea, berde asko; loreak eta sagarrondoak harri eta altzairuaren kontra”. Ez, ala?

ELENA Bai. Eta irudi ederra da. Orain segi ahuntzarekin!

MARTIN Horretan ari nintzen! Lasai. Oraintxe hitz egingo dugu berari buruz.

ELENA Eta eziozu BERA deitu!

MARTIN Nola nahi duzu esatea? BERA da! Bera!

ELENA (1. *platera hautsi*) Akatu egingo zaitut.

MARTIN Elkarte bat aurkitu nuen, terapia egiteko leku bat nork bere arazoaz hitz egiteko. “Alkoholiko Anonimoen” modukoa.

ELENA “Ahuntz-larrutero Anonimoak”?

MARTIN Mesedez!

ELENA Barkatu. Segi ni birrintzen.

MARTIN Ez. Ez dauka izenik, ez anonimo, ez ezer. Elkarte bat da, besterik gabe.

ELENA Nola aurkitu zenuen?

MARTIN Internet bidez.

ELENA Nola ez!

MARTIN Joan nintzen hara eta beste hamar bat lagun baziren... Eta talde-buru bat.

ELENA Eta zerekin jotzen zuen talde-buruak? Ai! “Norekin”. Barkatu.

MARTIN Sendatuta zegoen. Esaten zuen... “utzita zeukala”.

ELENA (Beste *plater bat hartzen du*) Oso ondo, baina zerekin jotzen zuen ordura arte?

MARTIN Txerri batekin.

(ELENAk 2. *platera hausten du*)

MARTIN Jarraitu behar duzu horretan?

ELENA Litekeena da.

MARTIN Zer nahi duzu, Julen (hona) jaistea zer gertatzen den ikustera? Kontu batzuk...

ELENA Kontu batzuk, zer? Pribatuak dira? Sakratuak? Adibidez, senar batek emazteari kontatzea terapia-saio oso berezi bat txerri batekin? Zer zen emea? Emea izango zen, noski.

MARTIN Txikia zen. Txerrikumea omen zen.

(ELENAk 3. platera hausten du)

ELENA Txerrikume bat... Benetan?

MARTIN Bueno, han bakoitzak badu bere...

ELENA ... bere zomorrotxoak. Aizu, eta Maitane Iturbe ere han ibiltzen da?

MARTIN Zein?

(ELENAk txartela marrazten dio airean)

MARTIN Bai! Bai, jakina! Han eman zidan txartela.

(ELENAk beste plater bat hartzen du)

ELENA Eta zerekin jotzen du berak? "Norekin", barkatu.

MARTIN Txakur batekin, uste dut.

(ELENAk 4. platera hausten du)

ELENA Txakur batekin, uste duzu.

MARTIN Zergatik esango zidan ba gezurra? Zergatik esan behar du han inork gezurra?

ELENA Ez daukat puta ideiarik ere! Eta zuekin eramaten dituzue zuen laguntxoak? Zuen txakurrak, zuen txerrikumeak, zuen ahuntzak? Silvia ere joaten da talde-terapia horretara?

MARTIN Ez. Ez gara joaten haietaz hitz egitera. Gure buruez hitz egitera joaten gara, gure arazoaz.

ELENA Ja. Orduan, “ganadua” oso zoriontsua da; ez dauka traumarik.

MARTIN Ez hain zoriontsua, ez pentsa... Behin aipatu zuten antzara bat... Gaixoa.

ELENA Ezidazu antzarek hitz egin! Ez txerriez, ez txakurrez! AHUNTZAK! Hori da gure gaia: ahuntzak.

MARTIN Gaia ahuntz BAT da; gaia Silvia da.

(ELENA negarrez. Beste plater bat hartzen du eta tabakoa)

MARTIN Ez! Ez! Mesedez! Entzuidazu! Eseri eta entzun!

(MARTIN lasaitzera hurbiltzen zaio. Aulkian esertzen du. Zigarroa pizten dio)

ELENA Bai, entzuten dizut.

MARTIN Hara joaten den jendeak arazoak ditu, lotsatuta daude. Eta nik ez nuen ulertzen zergatik sentitzen ziren hain zoritxarreko? Zer du ba txarrik maiteminduta egoteak?

(ELENAk 5. platera hausten du)

MARTIN Gehienek historia luzea dute: txerriarekin egiten zuen mutila baserritarra zen, eta anaiak eta berak, txikitan natural-natural egiten zuten txerriekin. Edo txerrikumeekin. Hori ez zitzaidan oso argi geratu.

ELENA Natural-natural, noski.

MARTIN Bai. Ulertzen duzu?

ELENA Ez. Baina saiatzen ari naiz.

MARTIN Hala egiten omen zuten. Eta agian hobe hori...

ELENA Hobe hori zer baino? Batak bestearekin jotzea baino? Edo arrebarekin? Edo amonarekin?

MARTIN Ez zioten inori kalterik egiten.

ELENA Jainkoarren!

MARTIN Gehienek arrazoi bat zuten. Txerriarekin egiten zuen mutilarena gehiago zen... ohitura-kontua. Erosoa egingo zitzaion... familiarra.

ELENA Familiarra, noski!

MARTIN Baina utzita omen zeukan; "osatuta" zegoen, berak zioen moduan. Eta horrek atentzioa eman zidan.

ELENA Jakina.

MARTIN Esan nahi dut... horrekin zoriontsu baldin bazen, ba ez zuen zertan utzi.

(ELENAk 6. platera hausten du)

MARTIN Baina utzi bazuen... zoriontsu ez zelako utziko zuen.

ELENA Eta ez zenion galdetu?

MARTIN Ez. Artzain-txakurrekin egiten zuen neska, berriz...

ELENA Maitane?

MARTIN Ez; beste bat. Artzain-txakurrekin egiten zuena ba aitak eta anaiak egunero bortxatzen omen zuten hamabi urte zituenetik, egunero. Batek begiratu eta besteak...

ELENA Eta horregatik egiten zuen artzain-txakur batekin. Logikoa.

MARTIN Bai. Antzararekin egiten zuen gizona oso itsusia zen. Ez zuen pentsatuko aukera izango zuenik sekula emakume batekin "egiteko".

ELENA Antzara batekin! Pertsona ona izan nahi dut! *(Aterantz)*

MARTIN Beste zerbait esan nahi dizut.

ELENA A! Gauza gehiago daukazu oraindik?

MARTIN Enrikeri kontatu nion gauza bat da.

ELENA Ez Enrike berriz aipatu, mesedez.

MARTIN Esan nion gu biok elkarrekin eman dugun denbora guztian, ni fidela izan naizela beti. Beti, urte luze hauetan. Ezta abentura bat ere. Pentsamenduan ere ez. Oso ondo gaude biok elkarrekin.

ELENA Ez zenuen susmatu ere egiten bikote bat hain perfektua izatera heldu zitekeenik, ezta?

MARTIN Ez. Alegia, bai!

ELENA Ona ohean, ona sukaldean, eta lorategia zaintzen ere badakit!

MARTIN Etzazu txantxarik egin!

ELENA Ez! Hau dena serioegia da txantxetan ez hartzeko. Badakizu zer? Izorrai.

(ELENA etxean sartzen da. Ate ondotik entzuten du MARTINEk dioena)

MARTIN Behin ere ez! Lagunek begira jarri eta esaten zidaten: “Baina, hiri zer gertatzen zaik? Egia al da emaztearekin bakarrik egiten duala? Baina ze gizon klase haiz hi?” Arraro samarra naiz: zu bakarrik maitatu zaitut.

ELENA Amak esaten zidan... Oso lagun onak ginen, sentitzen dut zuk ez ezagutu izana.

MARTIN Nik ere sentitzen dut.

ELENA Esaten zidan: “Ez zaitetz ezkondu maiteminduta ez bazaude, guztiz, sakon, seko maiteminduta. Baina kontuz norekin maitemintzen zaren, litekeena baita harekin ezkontzera ailegatzea”. Eta kasu egin nion. Zurekin maitemindu nintzen, ezta? Edo hobeto esanda, zurekin deskubritu nuen maitasuna. Eta nola esan? Maitatu egin zaitut urte hauetan guztietan, harro sentitu naiz egiten zenuen guztiaz, eta zoriontsu izan naiz gure seme bitxi horrekin. Zoriontsu izan naiz! Uste dut hori dela hitza: zoriontsu. Ez, uste ez. Seguru nago. Zoriontsu izan naiz. Begiraidazu, ama, maite nuen gizonarekin ezkondu nintzen. Eta zoriontsu izan naiz.

MARTIN *(Hurbilduz)* Elena...

ELENA KENDU ZURE ATZAPAR ZIKIN HORIEK NIRE GAINETIK!!!! KABROIA! AKER PUTA NAZKAGARRIA!

MARTIN Oso ondo! Konforme! Kitto!

ELENA Kitto ez! Gehiago nahi dut! Gehiago! Bota ezazu dena! Segi botaka nire gainean. Sekula ez nauzu-ta hain ahul aurkituko. Segi! Hementxe nago, prest, sakrifizio-mahaian, biluzik. Hartu labana! Ebaki nazazu mila puskatan!

MARTIN Zure gainean botaka egin aurretik edo ondoren? Barkatu.

ELENA Larriminak jota gaudenean, emakumeok askotan ez dugu asmatzen metafora egokia aurkitzen. Beraz, muino baten gainaldera igo zinen eta orduan ikusi zenuen.

MARTIN Bai, han zegoen. Niri begira ... bere begi haiekin.

ELENA Bere begi haiekin!

MARTIN Eta orduan sentitu nuenak ez zuen batere antzik inoiz sentitu dudanarekin. Batere ez. Inoiz ere ez. Bere begi haiekin begiratu zidan eta ni... urtu egin nintzen.

ELENA Urtu egin zinen!!

MARTIN Bai, urtu egin nintzen. Sekula ikusi gabe nengoen halako espresiorik. Garbia zen, errugabea, konfiantza ematen zuen; hain zen samurra, hain maltzurkeriarik gabea...

ELENA "Hain zen samurra, hain maltzurkeriarik gabea." Ez al dituzu inoiz ikusi haur baten begiak? Ja ez zara gogoratzen nola begiratzen zigun Julenek txikia zenean?

MARTIN Horixe baietz! Ezidazu burlarik egin.

ELENA Ezidazu burlarik egin zuk niri.

MARTIN Harengana hurbildu nintzen, hesiraino iritsi eta belaunikatu egin nintzen Silviaren parean...

ELENA Ahuntzaren pare.

MARTIN Bukaeraraino iritsi nahi dut! Zeuk eskatu didazu eta bukatu egingo dut. Beraz... itxi aho puta hori!! Entzun. Une hartan sentitu nuen norbait etorri zela, auskalo ze galaxiatatik eta berekin eramán ninduela. Estasian erori nintzen: maitasun erabatekoa zen... imajina ezina. Ez dut inoiz halakorik ezagutu, ezin dut ezerekin lotu. Ez duzu ikusten? Ezin duzu ulertu zer gertatu zitzaidan? Elkarrenganako sentimendu hura ulertezina zen. Eta zergatik ez dut sentitzen sentitu beharko nukeena? Zergatik ezin dut esperientzia hura ezerekin lotu? Ez zuen gertatu behar. Ez zuen gertatu behar. Baina gertatu egin zen! Hain naturala izan zen, hain indartsua, hain sakona... Gu biok —ederki kostata!— batera korritu ginen lehen aldian bezala. Gogoratzen? Elena, ez zuen gertatu behar. Baina gertatu egin zen.

ELENA Hainbeste gorrotatzen al nauzu?

MARTIN Ikaragarri maite zaitut. Eta bera ere maite dut. Eta hori da dena. Hura... nola esan? Epifania bat izan zen, hori da. Epifania! Eta hori gertatzen denean, ez dago atzera bueltarik. Hesiaren alanbre artetik luzatu nizekion eskuak eta berak eskuetan pausatu zidan aurpegia emeki-emeki, eta alanbre artetik muturra nire sudurrera hurbilduz, laztandu egin ninduen.

ELENA Gizaki heldua naiz, emakume erabatekoa, esperientzia handiko emaztea...

MARTIN Haren hatsa hain zen... gozoa, beroa...

(JULEN sartzen da)

JULEN *(Elenari)* Jo egin zaitu?

ELENA Ez, ni ari naiz nire buruari min egiten, ni bakarrik.

JULEN Dena entzun dizuet koartotik. Utzi, mesedez!! Nahikoa da!

MARTIN Utziko diagu. Baina bukatutakoan.

ELENA Alde hemendik, Julen. Zoaz kalera eta dibertitu.

JULEN Dibertitu?

ELENA Kalera edo nahi duzun lekura! Baina utzi gu biok bakarrik!

MARTIN Egintzak amak esandakoa: “Hoa kalera eta dibertitu”. Egintzak footing pixka bat, igo zuhaitzetara...

JULEN Itzultzen naizenean, eskua gainean jarri diozula ikusten badut, nik... (txikitu egingo zaitut)

(MARTINEK musu ematen dio. JULEN badoa)

ELENA Igo zuhaitzetara? Zer egin behar duzu Julen itzuli eta zauritu nauzula ikusten duenean?

MARTIN Zer?

ELENA Jainkoarren, ergela bazina, sikiera...!

MARTIN Bai. Zu ere ergela bazina, sikiera...!

ELENA Bueno, zure epifaniaren erdian ari zinen.

MARTIN Bai. Orduan konturatu nintzen Silvia eta biok...

ELENA ... zu eta zure ahuntz puta hori bata bestearentzako eginak zinetela.

MARTIN Ez. Silvia eta biok... elkarrekin bukatuko genuela ohean.

ELENA Ez! Elkarrekin ukuiluan! Elkarrekin lasto artean, belarretan, lokatzetan, simaurretan! Baina ez ohean!

MARTIN Berdin dio. Gertatu behar ez zuena gertatzen ari zen. Elkar desio genuen, nik berarekin egon nahi nuen, eta berak nirekin egon nahi zuen.

(ELENAK 7. platera botatzen du)

ELENA Zeinekin joko duzu hurrengoan? Julenekin?

MARTIN Ez da nire gustukoa.

ELENA Ez da zure gustukoa? Ez da zure gustu arraroak asetzeko modukoa?

MARTIN Ez. ZU zara nire gustukoa!

ELENA Ni naiz zure gustukoa. Baina ahuntza ere bai. Beti ere emea baldin bada, ezta? Beti ere, alua baldin badu, noski. Horrekin nahikoa duzu.

MARTIN Ez da alua. Arima da! Arima baldin badu! Ez duzu ulertzen. Ez da alua, Elena, arima da!

ELENA Ezin duzu larrua jo arima batekin.

MARTIN Ez. Kontua ez da larrua jotzea.

ELENA Bai, BADA!

MARTIN Ez. Ez, Elena. Ez da.

ELENA Bai! Kontua larrua jotzea da, txortan egitea! Animalien pare jokatzeari!

MARTIN Animalia naiz. Horixe naiz; horixe gara. Denok gara animaliak.

ELENA Baina gure espeziekoekin bakarrik elkartzen gara!

MARTIN Baina izaki-mota askorekin maitemintzen gara. Txakurrak, katuak...

ELENA Baina ez dugu haiekin larrua jotzen! Bortxatzaile bat zara!

MARTIN Ez.

ELENA Animalien bortxatzailea!

MARTIN Ez! Silvia eta biok...

ELENA Zer esan behar didazu, maite zaituela?

MARTIN Bai.

ELENA Eta nola esaten dizu? Belarrian koska eginez bee lotsatien artean?

MARTIN Bee ardiek egiten dute.

ELENA Berdin du! Zer egiten dizu, bere burua eskaini? Aurrean jartzen zaizu hankak zabal-zabal eginda maiteminak jotako begiak jarrita?

MARTIN Nik maite dut. Eta berak maite nau.

ELENA AAAAAA! (*Oihu mutua*) Orain entzuidazu zuk niri. Nik entzun dizut: izugarri maite omen nauzu; ez omen duzu sekula beste emakumerik maitatu; senar-emazte ia perfektuak izan omen gara. Baina gu biok argiegiak gara kaka hau onartzeko. Sarkasmoa ikusteko gai gara, gai gara minaren azpian ezkututzen den umore sakona ikusteko. Guk larritasuna ikusten dugu jende gehienak normaltzat jotzen dituen izugarrikerien atzean. Eta aurrera egiten dugu kontzientzia horrek dituen alde on eta txar guztiakin. Gure bizitzan, bidea markatua daukagu, eta heriotzara garamatza zuzen-zuzenean; baina ondo dago, ez da ezer gertatzen, bidea ona delako... Bidea ona da. Izorratzen ez dugun bitartean.

MARTIN Badakit.

ELENA Ixo! Izorratzen ez dugun bitartean. Eta zuk izorratu egin duzu!

MARTIN Elena...

ELENA Ixo! Eta badakizu zergatik izorratu duzun?

MARTIN Bai. Egun batean mendira joan nintzelako etxetxo baten bila gu biontzat.

ELENA Ez. Konpontzerik ez dagoen zerbait puskatu duzulako! Ez zaude ja nirekin maiteminduta? Oso ondo. Ez. Ez. Oso ondo ez, baina tira. Hori konpondu daiteke, denbora-kontua da, edo ez dakit... Baina esatea ni maite nauzula eta baita animalia bat ere! Biak maite gaituzu modu berean! Biak berdin-berdin! Nire ohetik jaiki... gure ohetik... —Aizu, egoera ikusita, harrigarria da ze ona zaren ohean. Nola moldatzen zara biak pozik edukitzeko aldi berean? Beti hor indartsu eta nekaezin. Harrigarria!— Ba, hori... gure ohetik jaiki, zakila garbitu, autoa hartu, haren ukuilura iritsi eta han hasiko zara berarekin egiten imajinatzeko ere gai ez naizena. Edo okerrago... Okerrago! Haren lasto pilatik nire ohera etortzen zara, —NIRE ohera, GURE ohera!— nirekin egitera, imajinatzeko gai naizena: maitasuna. Nola moldatzen zara bi gauzak egiteko dena pikutara doala ikusi gabe? Ez duzu ikusten gauza batzuekin ez

dagoela jolasterik? Ez al duzu ikusten ezin dudala zure portaera onartu ulertzeko kapaz banaiz ere?

MARTIN Elena, zin egiten dizut utziko dudala.

ELENA Txikitu egin nauzu, ahuntz-larrutero zikina! Zuk, nire bizitzako maitasuna! Birrindu egin nauzu! Hondoratu egin nauzu, eta hitz ematen dizut jainkoaren izenean zu ere hondora eramango zaitudala nirekin batera!

ILUN

3. EKITALDIA

(Ordu batzuk geroago. Egunsentia. Musika, txoriak. MARTIN etzanda belarretan. JULEN sartzen da, porro bat eskuan)

JULEN Ondo pasa duzue, e!

MARTIN Bai!

JULEN Non dago?

MARTIN Zein?

JULEN Nire ama. Non dago nire ama?

MARTIN Non dago “NIRE” ama. Ez, non dago ama. Ez. Non dago “NIRE” ama.

JULEN Berdin dio! Non dago?

MARTIN Alde egin dik. Danbateko bat eta alde egin dik. Autoa hartu eta hor nonbait ibiliko duk.

JULEN Nora joan da?

MARTIN Ez zekiat. Joan egin duk. Eta EZ, ez diat hil. Eta BAI, hil egin diat. Uste diat elkar hil dugula. Idatziz esatea nahi duk?

JULEN (*Kea bota*) Gurasoak liskartu egiten dira; seme-alaba guztiok dakigu hori. Badakigu bolada onak daudela eta bolada txarrak, eta tentsioak daudela, eta noizean behin baten batek gehiegi tiratzen duela hanka azpian duzun mantatik eta orduan... (pikutara joaten da dena)

MARTIN Nahasten ari haiz metaforekin.

JULEN Zer?

MARTIN Berdin zio; ez gaituk orain hitzekin korapilatzen hasiko. Esaten ari hintzen “bolada onak daudela eta bolada txarrak”...

JULEN Bai. Eskerrik asko.

MARTIN Ez horregatik.

- JULEN** Eta batzuetan baten batek tira egiten du... hanka azpian duzun...
- MARTIN** Alfonbratik.
- JULEN** Alfonbratik, bai!! Baina zaude isilik eta utzidazu hitz egiten behingoagatik! Filologo merkea!!
- MARTIN** Emaidak kaladatxo bat. (*Porroa itzali*) Beraz, bolada onak...
- JULEN** ... eta bolada txarrak daude, bai. Batzuetan, pozez zorutzen gaude. Izaten dira halako momentuak, baina ez dira asko. Beste batzuetan, ez dugu ulertzen ze arraio gertatzen ari den... ze arraio gertatzen ari zaigun... Gutaz ari naiz, "nerabe" puta hauetaz.
- MARTIN** Bazekiat.
- JULEN** Eta beste batzuetan, helduak izan nahi genuke, atletik korrika atera eta berriz ere hasteko, beste leku batean. Eta dakigun guztia ezabatu.
- MARTIN** Eta?
- JULEN** Badakizu zertaz ari naizen, kabroia! Zer egin diozu nire amari?
- MARTIN** Hizketan aritu gaituk. Solasaldia bukatu diagu, hire amak azken hitza esan dik —nola ez— eta alde egin dik sekulako danbatekoa emanda.
- JULEN** Noiz?
- MARTIN** Orain dela ordu bete; bi ordu agian. Edo sei. Ez zekiat.
- JULEN** Sei ordu? Eta ez duzu telefonoa hartu eta...?
- MARTIN** Eta zer!? Ertzaintzari deitu? "Lagundu, zipaio jauna, lagundu, mesedez! Emazteak ganadu-tratuan nabilela jakin du eta ihes egin du etxetik, lagunduko al didazu aurkitzen, zipaio jauna?" Hori esan nahi duk? Nahiko heldua duk, ez duk uste? Gin-tonik bat hartzera joango zuan.
- JULEN** Zer esan dizu?

MARTIN Gauza dezente.

JULEN Joan denean! Zer esan dizu joan denean?

MARTIN “Hondoratu egin nauzu eta hondora eramango zaitut nirekin batera!”

JULEN Eta horrek zer esan nahi du?

MARTIN Horrek esan nahi dik egin dudanak ez daukala konponbiderik eta ez naizela hain erraz libratuko”.

JULEN Joder.

MARTIN Zuk txikitu egin nauzu eta nik txikitu egingo zaitut. (*Tragoa petakari. Hutsik dago*) Kito, akabo, hondoratuta, itota komuneko zuloatik gora borborrean gainezka egiten duen kakatan; amildegiaren ertzean nagok, errotarria lepotik zintzilik. (*Barrez biak*)

JULEN Eta orain zer? Dibortzioa?

MARTIN Nik zer zekiat, ba, Julen. Ez diat uste legerik dagoenik gurea bezalako egoera baterako.

JULEN Neurri guztiak gainditu dituzu, ezta?

MARTIN Hala ematen dik.

JULEN Ez dakit... pentsatzen dut ez naizela inoiz maiteminduta egon.

MARTIN Lasai.

JULEN Bueno, rolo asko izan ditut hori bai, baina...

MARTIN Bai, bai. Bazekiat. Nik, berriz, bi besterik ez: hire ama eta Silvia.

JULEN Berarekin jarraitzeko asmoa duzu?

MARTIN Norekin?

JULEN Ahuntzarekin! Zure maitearekin.

MARTIN Bai.

JULEN Joder, aita! “Noiz egingo haiz gizon?”

- MARTIN** Zer?! (*MARTINek barre egiten du*) Lagunduidak jasotzen.
- JULEN** Non utziko dut hau? (*Petakagatik*)
- MARTIN** Bota zakarrontzira.
- JULEN** Institutuan eskatu digute gure bizitzari buruz hitz egitera ateratzeko. Normala ote den, guk ze iritzi daukagun...
- MARTIN** Ze institutu-klase da hori?
- JULEN** Zuk aukeratu zenuena. Kategoria handiko lekua da. Denak mutilak. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez. Bueno, ba, banan-banan oholtzara igo behar dugu guztiok eta kontatu nolakoa den gure etxea, eta nolakoak diren gure gurasoak, eta hori dena. Lagunek ez dute ezer berezirik kontatzen, gurasoak bananduta ez badituzte behintzat, edo hilda, edo burutik eginda. Ez dakit. Agian, ez dira ausartzen trapu zikinak aireratzen, edo besterik gabe ez dituzte ezagutzen, edo ez dakite existitzen direnik ere. (*Domina hartzen du*) Non utziko dut hau?
- MARTIN** Zakarrontzira. Dena zakarrontzira.
- JULEN** Oso ondo. Ba, hori, oso aspergarria dena, normalegia, espero nuena gutxi gorabehera.
- MARTIN** Antza denez, hik ez duk hitz egin, oraindik.
- JULEN** Ez. Oraindik ez. Badakizu zer kontatuko dudan nire txanda iritsitakoan?
- MARTIN** Nahiago ez jakin.
- JULEN** Bai, nahi duzu; mutil indartsua zara-ta.
- MARTIN** Ez pentsa, makalduta nabilek.
- JULEN** Kontatuko diet bi pertsona zoragarriekin bizi naizela; ez dagoela familia hobean jaiotzerik. Ez. Benetan. Guraso onak zarete, besteak bezain onak, edo hobeak. Zu azkarra zara, zintzoa, umore handikoa —eta ama ere bai— eta enroilatuak zarete biak. Eta gainera erakutsi didazu seme bat hezitzea ez dela aitaren

fotokopia egitea. Utzi didazu nire kabuz pentsatzen. Oso ondo ulertu duzu ni homoa izatea. Eta izugarri lagundu didazu.

MARTIN Baina hi homosexuala al haiz!?

JULEN (*Irribarrea*) Zuk erraza jarri didazu: aukera eman didazu nerabe “normala” izateko. Aholku onak eman dizkidazu. Zoragarria da zuek biok elkar nola maite duzuen ikustea!

MARTIN Bai, ezta!

JULEN Nik behintzat hala uste nuen... gaur arte; haizagailua kaka zabaltzen hasi den arte.

MARTIN Ez segi hortik...

JULEN (*Barne-min sakonarekin*) Bai, haizagailua kaka zabaltzen hasi eta nik eskolan egin behar nuen diskurtsoa ere kakaz bete den arte! Zer kontatu behar dut nik orain? Zer kontatu behar dut? (*Publikoari*) “Lagunok, adiskideok, ikaskide maiteok: Atzo etxera iritsi nintzen eta dena zoragarria zen; guztiz normala dena, zoragarria beraz. Gurasoak zoragarriak, etxea zoragarria, lorategia zoragarria, bi auto zoragarriak; badakizue: *home sweet home*. Baina gaur... gaur etxera iritsi, eta zer topatu dut? Topatu ditut nire aitaxo zoragarria eta nire amatxo zoragarria Enrike lagun zoragarriak idatzitako gutunari buruz hizketan...

MARTIN Putakumea!

JULEN Enrike lagun zoragarriak gutun bat idatzi dio nire amatxo zoragarri eta maitagarriari kontatzeko nire aitaxo zoragarri eta maitagarria ukuilu batean aurkitu dutela animaliekin txortan!!

MARTIN Ez, Julen, etzak holakorik esan.

JULEN Animaliekin txortan! Bueno, batekin bereziki. Ahuntz batekin! Ahuntz puta batekin! Edo puta ahuntz batekin, nahi duzuen bezala! Ikusten al duzue, lagunok, adiskideok, ikaskide maiteok? Zuen diskurtsoak oso dotoreak izan dira bai, baina nireak txundituta utziko

zaituzte, flipa-flipa eginda. Badakizue? Nire aita, hain zoragarria bera, eta nire ama, hain zoragarria bera ere, munduko aita-ama zoragarrienak zirela ematen bazuen ere, haietako bat, ezkutuka, zulo bat egiten ari zen etxeko sotoan. Hain zulo zabala, hain sakona, hain ikaragarria, zulo horren barruan erori gara denok. Eta... ez gara gai izango sekula zulotik ateratzeko, gogotik saiatuta ere. Eta jakin nahi duzue gauza bat, lagunok, adiskideok, ikaskide maiteok?

(ENRIKE agertzen da kubo barruan)

JULEN Maite ditut bi pertsona horiek. Maite dut etxeko sotoan bere hilobia zulatzen ari den gizona... ahuntzarekin txortan ari ez denean, noski! Maite dut gizon hori! Maite dut! Joder, maite dut!!... Maite zaitut!!

(JULEN musu ematen hasten zaio; lehenik eskuetan; gero, lepoan. Bat-batean zerbait aldatu eta ahoan ematen dio musua)

MARTIN Ze ari haiz?!

JULEN Maite zaitut!

MARTIN Bai. Baina hi...

JULEN Zer, marikoia naizela?

MARTIN Ez, nire semea.

JULEN Aita! MAITE ZAITUT! Lagundu! Mesedez, lagundu!!

ENRIKE *(Haien atzean, geldirik)* Barkatu. Sentitzen dut... eszena hunkigarri hau etetea...

MARTIN Zer!? “Ze eszena”? Aita-semeak elkarri musu ematen diotena? Horra argumentu polita, hire gutun nazkagarri horietako bat idazteko. Ospa hemendik oraintxe bertan!

JULEN Enrike, ez da zuk uste duzuna!

MARTIN *(JULENi)* Bai! Bai! Baduk berak uste duena! Etzak hire burua justifikatu, etzak barkamena eskatu. *(ENRIKEri)* Hik eta hire semeak ez al diozue inoiz elkarri musurik ematen? Ez al diozue inoiz maitasunik adierazten elkarri?

ENRIKE Horrela, ez!

MARTIN Nola, orduan, kabroi zikina? Nola?? Mutiko hau zaurituta zegok eta sufritzen ari duk, erruz! Nik min handia eman zioat. Eta hala ere maite naik oraindik. Eta maitasun hori bat-batean “klik” egin eta zerbait sexuala bilakatzen bada, ZER? e? ZER? Zaurituta zegok! Eta bakarrik zegok! Eta hik etzak muturra sartu inporta ez zaian tokian! Aitu?!

ENRIKE Uste nuena baino gaixoago hago.

MARTIN Ez nagok gaixo. Sutan, amorratzen nagok!!

JULEN Hori da. Une batez nahastu egin ditut maitasuna eta sexua.

MARTIN Lasai.

JULEN (*ENRIKEri*). Bai, oso litekeena da berarekin oheratu nahi izatea. Mundu guztiarekin oheratu nahi dut. Bueno, zurekin ez.

ENRIKE Jainkoarren! Gaixo zaudete! Zer gertatzen da, kutsakorra da, ala?

MARTIN (*ENRIKEri eta JULENi*) Lagun batek kontatu zidan gimnasioan behin semea zeukala magalean eta kontu txikitan ari zirela. Belaunen gainean kulunka edo saltoka barre eragiten zion umeari, eta bat-batean konturatu zen erekzio bat zuela. Zakila tente jartzen ari zitzaion. Eta aztoratzen hasi zen. Bihotza mailuka hasi omen zitzaion lehertu beharrean. Eta belarriak txistuka. Gero eta txistu-hots zorrotzagoa, ozenagoa! Eta zorabiatu egin zen ia. Baina larritasun-une hura pasa eta konturatu zen huskeria izan zela, ez zuela zertan larritu, zertan aztoratu. Orduan, emaztea etorri, irribarre egin zioten elkarri, umea amaren besoetan utzi eta hantxe bukatu zen dena. Kito. Gertatzen dituk halako gauzak. Baina ez zegok lau haizetara zabaldu beharrik.

ENRIKE Ze ari haiz? Hire burua defendatzen? Jainkoarren! Gaixo hago!

- MARTIN** Ez al daukak beste hitzik? "Jainkoarren!" eta "gaixo hago" ez al dakik besterik esaten?
- JULEN** Aita, umetxo hori ni nintzen?
- MARTIN** Ez, Julen, ez hintzen hi. (*ENRIKE*) Zertara etorri haiz hona putakume arraioa?
- ENRIKE** Elenak deitu zidak. Nire premia omen zeukaan, eta etortzeko eskatu zidak.
- MARTIN** Eta nik alde egiteko esaten diat. Ospa hemendik! Egon, egon, Elenak deitu dik?
- ENRIKE** (*Baietz buruarekin*) Ereizioa umetxo batekin! Baina zuek zerekin ez zarete berotzen? Sexua besterik ez daukazue buruan?
- MARTIN** Sexua besterik ba al daukagun buruan? Ba ote da inoren buruan ezer sexuaz aparte?
- ENRIKE** Izugarri gaixo zaudete.
- MARTIN** Nik esango diat zer den gaixo egotea! Elenari gutun nazkagarri hori idaztea. Hori duk gaixo egotea! Dena kontatu nian, hirekin konpartitu nian hi hintzelako nire lagunik onena. Eta hik, putakume horrek, nik buelta eman orduko...
- ENRIKE** Ez nian beste irtenbiderik izan.
- MARTIN** EZ!! Hori ez duk egia! Ez huen zertan egin!
- ENRIKE** Ezin nian utzi horrekin jarraitzen.
- MARTIN** Gaindituko nian. Utzi egingo nian eta inork ez zian sekula ezer jakingo. Hik bakarrik, putakume arraio horrek.
- ENRIKE** Ez! Ez huen utziko!
- MARTIN** Ados: gaixotasuna zuan. Baina gaindituko nian. Eta orain inork ezingo dik deskalabru hau konpondu.
- ENRIKE** Gaixotasuna zuan ez. Gaixotasuna duk.
- MARTIN** Gaixotasuna duk. Ados. Duk. Gaixotasuna duk.

- ENRIKE** Eta aberrazio beldurgarria!
- MARTIN** Nahi duana. Baina gaitutuko nian! Ez huen zertan birrindu dena!
- ENRIKE** Nik? Nik birrindu diat dena? Aizak, Martin, hau ez duk faktura faltsu bat egin eta Haziendak harrapatzea. Hau ez duk bolada luze batean kokaina sartzen ibili eta gero uzterik ez daukaala konturatzea. Hau ez duk beste emazte bat eta beste pare bat seme-alaba edukitzea Venezuelan. Ez. Hau harantzago zoak. Askoz harantzago! Honek dena gaitutzen dik! Honekin jarraituz gero, egunen batean deskuidua izan eta baten batek harrapatuko hau, nahiz eta izugarri urruti egon ezkututzen zareten ukuilua. Norbaitek lau hankatan harrapatuko hau animaliaaren gainean prakak txorkatiletan dituala.
- JULEN** Uztazu bakean, Enrike, ostia!
- ENRIKE** (*JULENi*) Badakik espetxe-zigorra dagoela horretarako? Badakik herrialde askotan heriotza-zigorra merezi duela? Badakik zer egingo luketen berarekin telebistak, prentsak, jendeak, mundu guztiak? Martin, txiki-txiki egin; zuen bizitza birrindu, ezer gabe utzi. Ahuntz batekin txortan egiteagatik.
- MARTIN** Zergatik ezin du inork ulertu. Zergatik ez du inork ikusten bakarrik nagoela, bakar-bakarrik?
- (*ELENA egongelan sartzen da ahuntz hildako bat arrastaka dakarrela. Lurrean uzten du*)
- MARTIN** Jainkoarren! Zer egin duzu?
- ELENA** Enrikek esan dit non aurkitu zure laguna, eta bila joan naiz. Aurkitu dut. Eta ekarri egin dizut.
- MARTIN** Baina zer egin dizu? Jainkoarren, zer egin dizu?
- ELENA** Maite zintuen. Nik adina.
- MARTIN** Barkatu. Barkatu. Barkatu.

AMAIA